## UROLA ERDIKO MANKOMUNITATEA

*Iragarkia*

Urola Erdiko Mankomunitateko Zuzendaritza Batzordeak, 2011ko apirilaren 4an egindako ohiko bilkuran, besteak beste, Hiri Hondakinen bilketa eta garraioari buruzko zerbitzuen kudeaketarako, Azpeitiko Udalaren eta Urola Erdiko Mankomunitatearen arteko Lankidetza Hitzarmena onartu zuen behin-betiko izaeraz.

Bi erakundeetako ordezkariek 2011ko maiatzaren 1ean sinatu zuten Lankidetza Hitzarmena eta horren testua argitaratzen da, Herri-Administrazioetako Araubidea eta Administrazio-Prozedura Arrunta arautzen dituen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 8.2 artikuluak xedaturikoari jarraituz.

Azkoitia, 2011ko maiatzaren 27a.—Mankomunitateko lehendakaria.

(123) (6422)

*Azpeitiako Udala eta Urola Erdiko Mankomunitatearen arteko lankidetza hitzarmena, hiri hondakinen bilketa eta garraioari buruzko zerbitzuen kudeaketarako.*

Azpeitian, 2011ko maiatzaren 1ean.

BILDU DIRA

Alde batetik: Julian Eizmendi Zinkunegi J., adinez nagusia, XXXX N.A. zkia duena, Azpeitiko Udaleko Alkate-Udalburua, Azpeitiko Udalbatza Osoak 2009ko urtarrilaren hamazazpian Udalbatzarrak hartutako erabakiaren arabera eta egintza honetan parte hartzeko ahalmena hartua.

Bestetik: Asier Aranbarri Urzelai J., adinez nagusia, XXXXX N.A. zkia duena, Urola Erdiko Mankomunitateko Lehendakaria, Entitate honen Zuzendaritza Batzordeak 2007ko urriaren 2an egindako bilkuran hartutako erabakiaren arabera eta egintza honetan parte hartzeko ahalmena hartua.

JARDUN DUTE

Julian Eizmendi Zinkunegi Jk, Azpeitiako udalaren izenean eta ordezkaritzan, udalbatza plenoak 2011ko martxoaren 3an hartutako ebazpenaren arabera. Aipatu ebazpenaren ziurtagiria hitzarmen honi eransten zio 1. dokumentu gisa. Egintza honetan parte hartu du Udal Idazkaria den Olatz Eizagirre Orbegozo Ak. lagunduta.

Asier Aranbarri Urzelai Jk., Urola Erdiko Mankomunitatearen izenean eta ordezkaritzan, Zuzendaritza Batzordeak 2011ko apirilaren 4an harturiko ebazpenaren arabera. Aipatu ebazpenaren ziurtagiria hitzarmen honi eransten zio 1. dokumentu gisa. Egintza honetan parte hartu du Mankomunitateko Idazkari-Kontuhartzailea den Begoña Garmendia Vazquez Ak. lagunduta.

Biok onartu diote elkarri behar adinako gaitasuna hitzarmen hau izenpetzeko, eta honako hau

ADIERAZI DUTE

*Lehena:* Urola Erdiko Mankomunitatea, honako herri hauek osatzen dutela: Aizarnazabal, Azpeitia, Azkoitia, Beizama, Bidegoian, Errezil eta Zestoa. Mankomunitate honen xedea, hiri izaerako zabor eta hondakinak biltzeko, garraiatzeko, tratatzeko eta desegiteko zerbitzua ematea dela.

## MANCOMUNIDAD DEL UROLA MEDIO

*Anuncio*

El Consejo de Dirección de la Mancomunidad de Servicios del Urola Medio, en su sesión de 4 de abril de 2011, aprobó provisionalmente, entre otros, el Convenio de Colaboración entre el Ayuntamiento de Azpeitia y la Mancomunidad del Urola Medio para la gestión de los servicios de recogida y transporte de residuos urbanos.

Los representantes de ambos organismos firmaron el Convenio de Colaboración el 1 de mayo de 2011, cuyo texto se publica en cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 8.2 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

Azpeitia, a 27 de mayo de 2011.—El presidente de la Mancomunidad.

(123) (6422)

*Convenio de colaboración entre el Ayuntamiento de Azpeitia y la Mancomunidad de Servicios del Urola Medio, para la gestión de la recogida y transporte de residuos urbanos.*

Azpeitia a 1 de mayo de 2011.

REUNIDOS

De una parte: D. Julian Eizmendi Zinkunegi, mayor de edad, con DNI núm: XXXX, alcalde-presidente del Ayuntamiento de Azpeitia, y facultado para este acto en virtud del acuerdo del Pleno de la Corporación de Azpeitia del diecisiete de enero de 2009.

De la otra: D. Asier Aranbarri Urzelai, mayor de edad, con DNI núm: XXXX, presidente de la Mancomunidad de Servicios del Urola Medio, y facultado para este acto en virtud del acuerdo del Consejo de Dirección de la misma del 2 de enero de 2007.

ACTÚAN

D. Julian Eizmendi Zinkunegi, en nombre y representación del Ayuntamiento de Azpeitia, en virtud del acuerdo del pleno municipal del 3 de marzo de 2011. El certificado del acuerdo citado figura como Anexo 1 en el presente documento. Actúa en este acto junto con la secretaria municipal Dña. Olatz Eizagirre Orbegozo.

D. Asier Aranbarri Urzelai, en nombre y representación de la Mancomunidad de Servicios del Urola Medio, en virtud del acuerdo del Consejo de Dirección del 4 de abril de 2011. El certificado del acuerdo citado figura como Anexo 1 en el presente documento. Actúa en este acto junto con la secretaria-interventora de la Mancomunidad Dña. Begoña Garmendia Vazquez.

Se reconocen mutuamente la capacidad para firmar el presente convenio, y

MANIFIESTAN

*Primero:* La Mancomunidad del Urola Medio está compuesta por los siguientes municipios: Aizarnazabal, Azpeitia, Azkoitia, Beizama, Bidegoian, Errezil y Zestoa. El objetivo de esta Mancomunidad es ofrecer servicio de recogida, transporte, tratamiento y eliminación de las basuras y residuos urbanos.

Alabaina, Urola Erdiko Mankomunitateak hiri-hondakin solidoen bilketa udalerri hauetan soilik egiten du: Azkoitian, Errezilen, Bidegoianen, Beizaman, Zestoan eta Aizarnazabalen. Hau da, mankomunitateko udalerri guztietan, Azpeitian izan ezik.

Azpeitiko udalerriaren kasuan, udala arduratzen da hiri-hondakin solidoen bilketa eta garraioaz, hitzarmen honi eransten zaion III Eranskinean aipatzen den txostenaren arabera. Txosten honetan, zerbitzuaren ezaugarri nagusiak (ibilbideak, maiztasunak, etab.) eta berari atxiki zaizkion baliabide materialak zein pertsonalak jaso dira.

Bestalde, Azpeitiko Udala, hain zuzen ere, Urola Erdiko Mankomunitatearen kide da, eta gastu orokorren ordainketan parte hartzen du, baita besteak beste, tamaina handiko hondakinen, olioen eta arroparen bilketa zerbitzuan ere.

*Bigarrena:* Mankomunitateak osatzen duten udalerrietan bildutako hondakinen ezabapena eta tratamendua, Lapatx zabortegian egiten dela. Aipatu zabortegiak okupatzen dituen lurren jabetza Azpeitiko udalarena da, eta Mankomunitatearen baltzu instrumentala den Urola Erdiko Lapatx Zabortegia S.A.k urteko kanon bat ordaintzen dio Azpeitiko udalari lur horren erabileragatik. Hala ere, egoera hau ez da arautu, ezta formalizatu ere dagokion hitzarmenaren bidez.

*Hirugarrena:* Egoera hau ikusirik, azken hilabete hauetan, Mankomunitateko ordezkariek eta Azpeitiko udaleko ordezkariek hiri-hondakinen alorreko kudeaketa-irizpideen bateratze-prozesu bat garatzen ari dira, zerbitzu hau bere osotasunean Mankomunitatearen eskuetara pasa dadin, eta zabortegiak okupatzen duen lurraren erregimen juridiko-ekonomikoa arautu dezaten.

Era honetan, Urola Erdiko Mankomunitateak, 2010eko uztailaren 9an egindako bilkuran, besteak beste, bere Estatutuen aldaketarako dokumentuari hasierako onespena eman zion. Onarturiko dokumentuaren Bigarren Xedapen Gehigarriak honako hau arautzen du:

Estatutu hauek Mankomunitatean gainerako hondakinak biltzeko kudeaketa integrala aurreikusten dutenez, Azpeitiko Udalak, Estatutu hauek onartu bitartean zerbitzua egunero ematen jarraitu duenak, konpromisoa hartzen du kudeaketa horretarako Urola Erdiko Mankomunitateari beharrezko baliabideak atxikitzeko. Mankomunitatea arduratuko da kostu hori ordaintzeaz, Mankomunitateko Batzarrak erabakitako baldintzetan; baldintza horiek, hain zuzen, 2010eko uztailaren 9ko akordio bidez erabaki dira.

Bestetik, Lehenengo Xedapen Gehigarriak honako hau dio:

Urola Erdiko Mankomunitatea eta Azpeitiko Udala ados agertu dira zabortegiko lurzorua (Azpeitiko Udalaren jabetza) Urola Erdiko Mankomunitatera atxikitzeko, Mankomunitateak egingo dituen zerbitzu publikoko lanetarako. Atxikitzea kostubidezkoa da; 2009an egindako kalkuluen arabera, urteko kanona 158.482 €-koa da zabortegia ixten den urtetik aurrera; kopuru hori urteko KPIarekin eguneratuko da.

Zabortegia ixten den egunera arte, Azpeitiko Udalak ordainsaria jasotzen jarraituko du, Mankomunitatearekin adostutakoaren arabera. Mankomunitatearen sozietate publikoak, bere zerbitzu tekniko eta bitartekoak, ordainduko du hori; hain zuzen ere, Urola Erdiko Lapatx Zabortegia, S.A.k.

Sin embargo, la Mancomunidad del Urola Medio solamente realiza el servicio de recogida de residuos sólidos urbanos en Azkoitia, Errezil, Bidegoian, Beizama, Zestoa y Aizarnazabal. Es decir, en todos los municipios integrados en la mancomunidad, a excepción de Azpeitia.

En el caso del municipio de Azpeitia, el ayuntamiento se responsabiliza de la recogida y transporte de los residuos sólidos urbanos, tal y como se expone en el informe que acompaña como Anexo III al presente convenio. Este informe recoge las características principales del servicio (recorridos, frecuencias, etc.), junto con los recursos tanto materiales como de personal adscritos al mismo.

Por otra parte el Ayuntamiento de Azpeitia, como miembro de la Mancomunidad del Urola Medio, participa en el pago de los gastos generales, incluidos los producidos por el servicio de recogida de residuos voluminosos, aceites y ropa.

*Segundo:* El tratamiento y eliminación de los residuos recogidos en los municipios que componen la mancomunidad se realiza en el vertedero de Lapatx. Los terrenos ocupados por el citado vertedero pertenecen al ayuntamiento de Azpeitia, y Urola Erdiko Lapatx Zabortegia, S.A., sociedad instrumental de la Mancomunidad, satisface un canon anual al ayuntamiento de Azpeitia por la utilización de los mismos. Aún así, esta situación no ha sido reglada ni formalizada en el convenio correspondiente.

*Tercero:* A la vista de esta situación, los representantes de la Mancomunidad y del ayuntamiento de Azpeitia están desarrollando un proceso de unificación de criterios para la gestión de los residuos urbanos, con la finalidad, por una parte, de que la totalidad del servicio pase a manos de la Mancomunidad, y de regular, por otra, el régimen jurídico-económico de los terrenos ocupados por el vertedero.

De este modo, la Mancomunidad del Urola Medio, en sesión del 9 de julio de 2010, aprobó inicialmente el documento de modificación de sus Estatutos. La Disposición Adicional Segunda del documento aprobado dice lo siguiente:

En la medida en que los presentes Estatutos prevén la gestión integral de la recogida de residuos en baja del conjunto de la Mancomunidad, el Ayuntamiento de Azpeitia, que ha venido prestando el servicio hasta el día de la aprobación de estos Estatutos de forma directa, se obliga a adscribir los medios necesarios para la señalada gestión a la Mancomunidad de Urola Erdia, que se hará cargo de su coste en los términos acordados por la Asamblea de la Mancomunidad, y que se han adoptado mediante acuerdo de 9 de julio de 2010.

Por otra parte, la Disposición Adicional Primera dice lo siguiente:

La Mancomunidad de Urola Erdia y el Ayuntamiento de Azpeitia muestran su conformidad a la adscripción del suelo del vertedero, propiedad del Ayuntamiento de Azpeitia, a la Mancomunidad de Urola Erdia y su afectación al servicio público desarrollado por ésta. Esta adscripción tiene carácter oneroso, fijándose el canon de la misma, según los cálculos realizados en el año 2009, en 158.482 € anuales. El canon será abonado a partir del año del cierre del vertedero, y su cifra se actualizará conforme a las variaciones experimentadas por el IPC anual, a partir del ejercicio de 2010.

Hasta la fecha de cierre del vertedero, el Ayuntamiento de Azpeitia continuará percibiendo la remuneración conforme a los acuerdos alcanzados con esta Mancomunidad, a través de su sociedad pública, servicio técnico y medio propio, Urola Erdiko Lapatx Zabortegia, S.A.

Halaber, atxikitze hori aldi baterakoa izango da; eta agintari eskudunak zabortegia itxi ondoko mantentze-aldia bukatu dela erabakitzen duen urtean amaituko da. Epe hori ez da izango, inola ere, 30 urte baino laburragoa, ixten den egunetik zenbatzen hasita.

Halaber, bilkura berdinean, Azpeitiko udalerrian hiri-hondakinen bilketa eta garraioarekin loturiko baliabideen azterketa eta Urola Erdiko Zerbitzu Mankomunitateari transferituko zaizkion baliabideak izeneko dokumentua eta honen eranskinak onartu zituen Zuzendaritza Batzordeak.

*Laugarrena:* Informazio publikoko izapidetzea iragan ondoren, Mankomunitateko Zuzendaritza Batzordeak, 2010eko azaroaren 10ean egindako bilkuran, Estatutuen aldaketako testua behin betikoz onartu zuen, hainbat alegazio eta proposamen aurretik onartu zituelarik. Behin betiko izaeraz onarturiko testuak Lehenengo Xedapen Gehigarria aldatu zuen, ondoan transkribatuko den eran.

*Bostgarrena:* Azpeitiko udaleko ordezkariak eta Urola Erdiko Mankomunitatearen ordezkariak, aurrekari hauetan aipaturiko ebazpenak gauzatzeko asmoz, lankidetza hitzarmen hau eman nahi dute, ondorengo klausulen arabera.

## KLAUSULAK

*Lehena:* Azpeitiko udalak hiri-hondakinen bilketa eta garraioari buruzko zerbitzua bere osotasunean Urola Erdiko Mankomunitatearen eskuetan jarriko du 2011ko maiatzaren batetik, hitzarmen honetan jasotzen diren irizpideak kontutan hartuta.

Urola Erdiko Mankomunitateak, bere aldetik, onartzen du Azpeitiko udalak egin dion zerbitzuen eskualdaketa.

*Bigarrena:* Urola Erdiko Mankomunitateak, hitzarmen honi eransten zaion III Eranskinean xedaturiko eran beteko ditu hiri-hondakinen bilketa eta garraioa Azpeitiko udalerrian, zera, gaur egungo ibilbideak, maiztasunak, etab. mantenduz.

Hala ere, Mankomunitateak egin ahal izango ditu zerbitzuaren hobekuntzak honako kasu hauetan:

— Eduki ekonomikorik ez dutenean

— Mankomunitateak onarturiko aurrekontuetan sartuta daudenean

*Hirugarrena:* Baliabide pertsonalei dagokienez, Urola Erdiko Mankomunitateak bereganatuko du hiri hondakinen bilketa eta garraioko zerbitzuari atxikiriko Azpeitiko udaleko pertsonala, bere funtzionario izaera, antzinatasuna, ordainsariak eta gainontzeko lan baldintzak mantenduz, IV Eranskinean xedatutakoaren arabera.

Helburu hau lortzearren, Urola Erdiko Mankomunitateak eta Azpeitiko udalak beharrezkoak diren aldaketak egingo dituzte beren plantila eta Lanpostuen Zerrendetan, dagozkien Giza Baliabideak arrazionalizatzeko egitasmoak garatuz.

*Laugarrena:* Baliabide materialei dagokienez, Azpeitiko udalak lagako dizkio Urola Erdiko Mankomunitateari egun bilketa eta garraioa egiteko beharrezkoak diren elementuak, dokumentu honen V Eranskinean agertzen den zerrendaren arabera.

*Bosgarrena:* Halaber, Urola Erdiko Mankomunitateak Azpeitiko udalaren lekua hartuko du hiri izaerako hondakinak bildu eta garraiatzeko zerbitzua gauzatzeko aipatu udalak indarrean dituen hitzarmenetan, dokumentu honen VI eranskinean aipatzen direlarik.

Esta adscripción tiene asimismo carácter temporal, concluyendo el año en que se acuerde por la autoridad competente la conclusión del periodo de mantenimiento post-clausura del vertedero, periodo que en ningún caso será inferior a 30 años contados desde la fecha del cierre.

Del mismo modo, en la misma sesión el Consejo de Dirección aprobó el documento denominado Estudio de recursos relacionados con la recogida y transporte de residuos sólidos urbanos en el municipio de Azpeitia y recursos a transferir a la Mancomunidad de Servicios del Urola Medio, junto con los anexos correspondientes.

*Cuarto:* Tras el trámite de información pública, el Consejo de Dirección de la Mancomunidad, en su sesión del 10 de noviembre de 2010, aprobó definitivamente el texto de modificación de estatutos, tras la aprobación de diversas alegaciones y propuestas. El texto definitivo aprobado modificó la Disposición Adicional Primera, tal y como se transcribe a continuación.

*Quinto:* Los representantes del ayuntamiento de Azpeitia y de la Mancomunidad del Urola Medio, en aras a concretar las disposiciones citadas en los antecedentes, dan el presente convenio de colaboración, en base a las siguientes

## CLÁUSULAS

*Primera:* El Ayuntamiento de Azpeitia dejará en manos de la Mancomunidad de Servicios del Urola Medio la totalidad del servicio de recogida y transporte de residuos urbanos a partir de mayo del 2011, tomando en consideración los criterios recogidos en el presente convenio.

La Mancomunidad del Urola Medio, por su parte, acepta la transferencia de servicios que le realiza el Ayuntamiento de Azpeitia.

*Segunda:* La Mancomunidad del Urola Medio, para la recogida y transporte de residuos urbanos en el municipio de Azpeitia, cumplirá lo dispuesto en el Anexo III del presente convenio, manteniendo los actuales recorridos, frecuencias, etc.

De todas maneras, la Mancomunidad podrá incluir mejoras en el servicio, en los casos siguientes:

— Cuando no supongan carga económica

— Cuando se encuentren incluidas en los presupuestos aprobados por la Mancomunidad

*Tercera:* En lo referente a los recursos de personal, la Mancomunidad del Urola Medio se hará cargo del personal del Ayuntamiento de Azpeitia adscrito al servicio de recogida y transporte de residuos sólidos, manteniendo su carácter funcionarial, antigüedad, retribuciones y demás condiciones, tal y como se recoge en el Anexo IV.

Para ello, la Mancomunidad del Urola Medio y el Ayuntamiento de Azpeitia realizarán las modificaciones necesarias en sus respectivas plantillas y relaciones de puestos de trabajo, en aras a una racionalización del los recursos humanos.

*Cuarta:* En lo referente a los recursos materiales, el Ayuntamiento de Azpeitia cederá a la Mancomunidad del Urola Medio los elementos hoy en día necesarios para la recogida y transporte de los residuos, según el listado recogido en el Anexo V del presente documento.

*Quinta:* Del mismo modo, la Mancomunidad del Urola Medio sustituirá al Ayuntamiento de Azpeitia en los convenios que éste mantiene en vigor en lo referente a los servicios de recogida y transporte de residuos sólidos urbanos, los cuales se reflejan en el Anexo VI del presente documento.

*Seigarrena:* Urola Erdiko Mankomunitatea eta Azpeitiko Udala ados agertu dira zabortegiko lurzorua (Azpeitiko Udalaren jabetza) Urola Erdiko Mankomunitatera atxikitzeko, Mankomunitateak egingo dituen zerbitzu publikoko lanetarako. Atxikitzea kostubidezkoa da; 2009an egindako kalkuluen arabera, urteko kanona 158.482 €-koa da. Kanon hori zabortegia ixten den urtetik aurrera ordainduko da eta kopuru hori urteko KPIak izandako aldakuntzaren arabera eguneratuko da, 2010 urteko ekitalditik aurrera.

Zabortegia ixten den egunera arte, Azpeitiko Udalak ordainsaria jasotzen jarraituko du, Mankomunitatearekin adostutakoaren arabera.

Mankomunitateak, bere sozietate publikoaren bitartez ordainduko du hori; hain zuzen ere, Urola Erdiko Lapatx Zabortegia, S.A.tik.

Halaber, atxikitze hori aldi baterakoa izango da; eta agintari eskudunak zabortegia itxi ondoko mantentze-aldia bukatu dela erabakitzen duen urtean amaituko da. Epe hori ez da izango, inola ere, 30 urte baino laburragoa, ixten den egunetik zenbatzen hasita.

*Seigarrena:* Hartutako konpromisoak alde batek ez baditu betetzen, beste aldeak ahalmena izango du bai hitzarmena zorrotz betetzea eskatzeko, eta bai hitzarmena amaitutzat emateko eta, bere kasuan, egindako ekarpen ekonomikoa oso-osorik itzultzea eskatzeko.

*Zazpigarrena:* Hitzarmen hau bi aldeek izenpetzen dutenean sartuko da indarrean, eta haren xedea bete bitartean edo amaitutzat eman arte izango du indarraldia.

*Zortzigarrena:* Hitzarmen honek izaera administratiboa du, eta bere interpretazio eta garapenerako Herri-Administrazioetako Araubidea eta Administrazio-Prozedura Arrunta arautzen dituen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 6. artikulua eta, orokorrean, administrazio-zuzenbidearen xedapenak aplikagarriak izango dira.

Eta bere adostasuna adierazteko, bi alderdiek izenpetzen dute hitzarmen hau, goian aipaturiko leku eta datan.

*Sexta:* La Mancomunidad del Urola Medio y el Ayuntamiento de Azpeitia muestran su conformidad a la adscripción del suelo del vertedero (propiedad del Ayuntamiento de Azpeitia) a la Mancomunidad del Urola Medio, para el servicio público a realizar por la misma. Será una adscripción onerosa; en base a los cálculos realizados en 2009, el canon anual será de 158.482 euros. El citado canon se satisfará a partir del año de cierre del vertedero, y se actualizará anualmente en base al incremento del IPC, a partir del ejercicio de 2010.

El Ayuntamiento de Azpeitia continuará recibiendo la retribución hasta el día de cierre del vertedero, según lo acordado con la Mancomunidad.

La Mancomunidad realizará el pago mediante su sociedad pública, es decir, por medio de Urola Erdiko Lapatx Zabortegia, S.A.

Asimismo, la citada adscripción será temporal; y finalizará el año en el que las autoridades competentes decidan la finalización del periodo de mantenimiento posterior al cierre del vertedero. Este plazo en ningún modo será inferior a 30 años, a partir del día de cierre.

*Séptima:* Si alguna de las partes no cumple sus compromisos, la otra parte podrá exigir el cumplimiento estricto del convenio, e incluso la resolución del mismo, solicitando incluso la devolución de todas las aportaciones económicas realizadas.

*Octava:* Este convenio entrará en vigor a la firma de las dos partes, y mantendrá su vigencia hasta la consecución de sus objetivos o hasta su resolución.

*Novena:* Este convenio es de carácter administrativo, y para su interpretación y desarrollo serán de aplicación el artículo 6.º de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común y, en general, cuantas disposiciones de derecho administrativo resulten de aplicación.

Y en prueba de conformidad, ambas partes firman el presente convenio, en el lugar y la fecha citados en el encabezamiento.